

TREBIÑUKO ESKOLA

Hiru tribu

Euskararen historia eta bilakaera Trebiñun

5. eta 6. Kurtsoko Trebiñuko ikaseak



LOPEZ DE GUEREÑU
LEHIAKETA



“Trebiñuko Konderrian euskararen inguruan egindako lan honetan euskarak gure herrietan izandako historia, bilakaera, erabilera eta gaur egungo egoera plasmatu nahi izan dugu. Honi lotuta, euskal jatorrizko toponimoak aztertu ditugu, horretarako, Glez. de Viñaspre eta Andoni Llosa adituen laguntza izan dugularik. Hitz hauen bitartez gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu.”

Trebiñuko ikasleak

“**G**aur egun Trebiñuko herrietan euskara gutxi entzuten da baina beti ez da horrela izan. Orain dela hiru mende euskaraz hitz egiten zela uste zen eta horren adibide Trebiñun topa ditzakegun hainbat toponimo: Martinarri, Guardamendi,...lur hauetan euskal toponimoak ugariak dira eta horrek garai batean euskaldunak bertan bizi izan zirela adierazten digu baina, joan gaitezen denboran urrunago...


Trebiñu hitzaren jatorriak zeresan ugari sortu ditu baina adituek diote latina dela, hau da, “*Trifinium*” aurkitu dute dokumentu zaharrenetan eta horrek “*hiru tribu*” esan nahi du. Pentsatzen da bertan hiru tribu bizi izan zirela, horietako bat erabat erdalduna izango zen, mendebaldekoa, eta beste biak euskaldunak. Batak bizkaiera antzeko euskara egingo zuen eta besteak ekialdeko ikutuekin. Hori uste da, beraz, leku hau oso gizartegune korapilatsua izan zen aintzinean, muga herria zen dudarik gabe.

Beraz, ildo honetatik hasi ginen historia liburuak kontsultatzen eta Trebiñun erromatarren konkistaren unean, garai hartako euskal lurraldean kultur ezaugarri berdintsuak zituzten herri batzuk bizi zirela konturatu ginen. Hizkuntza berezi bat, euskara, eta antzeko ohiturak eta bizimodua zituzten herrialde haiek. *Ptolomeo* izan da herri haien kokapenari buruzko informazio gehien esan zuena.



Erromatarrek etorri zirenean, euskarak gaurkoa baino askoz ere hedapen zabalagoa zeukan. Frogaturik dago erabiltzen zela *Garona* (iparraldetik) eta *Ebro* (hegoaldetik) ibaien artean, eta baita erdialdeko Pirinioetaraino ere. Mendebaldeko mugak berriz ilunagoak dira.

Euskaraz mintzo ziren honako tribu zahar hauek: Akitaniarrak,



Baskoiak, Barduliarrak, Beroiak, Karistiarrak eta agian, Autrigoiak.


- **AKITANIARRAK:** *Julio Zesarren* arabera, Akitaniarrak Garona ibaiaren eta Pirinioen artean bizi ziren. Euskaraz mintzatzen ziren.
- **BASKOIAK:** Oro har gaur egungo Nafarroan bizi ziren. Kostaldera heltzen ziren (Irun aldean). Errioxaraino hegoaldeetik (Calahorra) eta Aragoi barneratzen ziren ekialdetik. Euskaraz mintzatzen ziren baina erromatarrak heldu zirenerako, Zeltiberiera eta Iberiera erabiltzen ziren hegoaldeko mugetan.
- **BARDULIARRAK:** Oro har, gaur egungo Gipuzkoan eta Arabako ekialdean bizi ziren. Herri euskalduna omen zen.
- **BEROIAK:** Oro har egungo Errioxan bizi ziren. Herri Zeltikoa zen euskaraz mintzatzen ziren baina zeltiberieraz ere.
- **KARISTIARRAK:** Oro har gaur egungo Bizkaian eta Arabako

mendebaldean bizi ziren. Herri euskalduna omen zen.

- **AUTRIGOIAK:** Oro har gaur egungo Kantabrian, Burgos iparraldean eta Euskal Herriko mendebaldeko lurretan bizi ziren. Haien hizkuntza indoeuroparra zen batzuentzat, zeltikoa ziurrenik; eta euskara beste batzuentzat.

Beraz, Karistiarrak, Barduliarrak eta Autrigoiak Trebiñun topatzen ziren hiru tribuak ziren. Hortaz, esan daiteke garai hartako Trebiñuko euskera ere hiru tribu zahar horien hizkuntzen nahasketa izan zela eta ondorioz, gaur egun ezagutzen dugun bizkaiera eta gipuzkeraren arteko nahasketa antzeko bat, lehenengoa nabarmentzen zelarik.

K.a. II mendean erromatarrak sartu ziren. Iberiar penintsulan eta latina ezarri zen. Latinak garaiko euskara inguratzen zuten hizkuntza guztiak irentsi zituen. Euskal Herriak osteraz, eutsi egin zion oro har bere hizkuntzari. Dena dela, euskarak ere lur eremu handiak galdu zituen:



Iparraldeko [Akitania](#), [Aragoi](#),
[Nafarroa](#) eta [Arabako](#) hegoaldea....


Mende hartan Euskal Herriak
pairatu zituen etengabeko gerrek
eta haien ondorioek bizkortu egin
zuten euskararen atzerakada.




Baskoniako gerlaria

Denbora pasa ahala,
euskararen eremua murriztuz joan
da. Horren ondorioz, XIX.
menderako Arabako eta beraz,
Trebiñuko euskararen galtzea ia
erabat burutu zen.

Gaur egun euskara Euskal
Herriko zenbait eremuetan soilik hitz
egiten da, batez ere, iparraldean.
Era berean, euskerak zazpi euskalki
aurkezten ditu: bizkaiera, gipuzkera,
nafarrera beheera, nafarrera garaia,
lapurtera, zuberera eta erronkaria.
Irudian klasean egindako euskalkien
mapa:.



Ivanek egindako euskalkien mapa



Gaurko egoerari buruz esan behar da Trebiñuko biztanleen % 13 inguru euskalduna dela (erabat elebiduna) eta beste hainbeste da euskaraz ulertzeko baina hitz egiteko gai ez direnen portzentaia, beste % 13 inguru. Ehuneko hauek Arabako eskualde batzuetako zenbait udalerriren antzekoak dira, adibidez Arabako Mendialdeko Urizaharra, Bernedo edo Lagran aldekoak. Hortaz, esan genezake euskeraren erabilera eta ezagutza Trebiñun Arabako eskualde batzuen antzekoa dela.

Trebiñuko euskerari dagokionez adituen arabera bertoko euskara mendebaldekoa zen batez ere, bizkaieraren antzekoa, nahiz eta ekialdeko ikutu batzuk izan. Baina kontuz, ez da Bizkaiatik etorritako euskaldunak bizi izanagatik, baizik eta bertakoek euskara hori egiten zutelako, Arabako mendebalde osoan legez.

Desagertzea, lekurik berantiarrenetan, hau da, Armentiaiko Bentatik ekialdera eta iparraldera, XVIII. mendean izan zen. Mendebaldean berriz, mende batzuk lehenago.

Honen inguruan, Trebiñuko eskolan abian jarri genuen inkesta antzeko bat. Hau da, gutako bakoitzak gure etxean eta gure herrietako bizilagunei galdetu genien euskeraren inguruan. Etxera eraman genituen galderak hauexek izan ziren:


- I. Alde batetik euskararen inguruan gure hurbilekoei zer dioten galdetu genien.
- II. Eta bestetik, etxean aiton-amonei eta gurasoei erakutsi genien hitz zerrenda bat eta horien artean zenbat ezagutzen zituzten galdetu.

Honi esker, Trebiñun euskeraren egoerari buruzko informazioa jaso genuen.

eta horrek ere badauka bere
influentzia emaitzetan, hortaz,
Trebiñuko egungo biztanleria
Gasteizko eta inguruko Arabako
herritarrek osotua dagoela
kontuan hartu beharreko gauza
da, dudarik gabe, euskarari
bultzakada inportantea ematen
dion gauza da eta.

II. Inkesta antzeko honen bigarren zatiari dagokionez berriz, hurrengo konklusioetara eramán gintuen:

Trebiñuko herrietan euskara jatorrizko hitz gutxi ezagutzen da eta ezagutzen diren hitzak erdaraz egitean konturatu gabe erabiltzen diren batzuk dira, horien artean: *Perrechico*, *hacer chalos* eta *amarraco*.



Emaitzen kasu gehienetan *Perrechico* hitza ezagutzen eta erabiltzen dela plasmutzen da. Ez da harritzekoa, izan ere, gaztelaniak aspaldi bereganatutako hitza da eta galdetutako jendea honen aurrean ere harrituta gelditzen da, ustez euskerarekin inungo erlazorik ez duen hitza delakoan. Gerardo Lopez de Guereñu Galarragak *Voces Vascas* bere liburuan esaten duen moduan Araban eta beraz Trebiñun erabiltzen den hitza da eta bere esanahia argia: "*seta comestible que aparece en primavera*".

Badago ere, *hacer chalos* ezagutu baina normalean erabiltzen ez duena. *Chalos* hitza txaloak egitearekin identifikatzen du baina esaten du normalean ez duela espresio hori erabiltzen. *Ganorabaco*, *maquila*, *bizcar* eta *sagarmin* bezalako hitzak ere Trebiñun ezagunak dira inkesta hauen arabera.

Azkenik, *amarretaco* (*Almuerzo de las diez*/Lopez de Guereñu) hitzaren inguruan esan behar da hitza inork ez duela ezagutzen baina batek baino gehiagok

komentatu digu nahastu izan duela *amarraco* hitzarekin eta hau ez bakarrik ezagutu baizik eta maiz erabili egiten duen hitza dela, musean jokatzean une oro ahotan duen hitza izanik. Beraz, *amarraco* (*Por amarreco tantos, del mus* (Lagran etc...)/Lopez de Guereñu) euskal jatorriko hitza ere oso ezaguna da eta dexente erabiltzen da Trebiñu inguruan.

Toponimoen inguruan ere hasi ginen lan egiten. Euskal jatorrizko toponimo asko dago Trebiñun. Baina...nondik hasi bilatzen? Gure irakasleari ideia bat okurritu zitzaion eta guk horri jarraituta zera egin genuen:

Aurten Korrika Trebiñuko herrian hasten da. Hortaz, zergatik ez korrikaren ibilbidearen inguruan topa ditzakegun euskal toponimoen zerrenda egin eta horien esanahia aztertu? Pentsatu eta lanari ekin. Egin genuen lehenengo gauza, aurtengo Korrikak Trebiñun izango zuen ibilbidea bilatzea izan zen: Trebiñu, Añastro, Argantzun, Trebiñu, Franko, Armentiako


Bentak, Argote, Albaita, Baxauri eta Obekuri.



Trebiñuko umeak Apirilaren 7an Korrikaren buruan

Toponimoak aztertzerako unean ere *Cuadernos de Toponimia* (Jose Antonio Gonzalez Salazar) liburua erabili genuen. Bertan, Trebiñuko toponimoen bilketa sakona agertzen da. Beraz, gure ibilbidea Trebiñuko herrian hasten da. Hurrengo mapan

aztergai izan genituen herriak agertzen dira. Ibilbidetik at beste herri batzuk ere kontuan hartu genituen interesgarriak diren toponimoak dituztela uste izan dugulako.



17. Korrikak Trebiñun izandako iblibidea


Euskal jatorrizko hitzak bilatzen hasi ginen eta euren esanahia eta ezagutza etxean eta gure inguruan galdetzen. Hitz asko bilatu genituen baina askotan gertatu egiten zen ez zutela euskararekin inongo erlaziorik. Hori jakiteko, Euskaltzaindiak bere web gunean honen inguruan daukan atalean kontsulta egiten genuen:

http://www.euskaltzaindia.net/index.php?option=com_content&Itemid=206&catid=85&id=292&lang=en&view=article




Bertan, hitza idatzi eta Euskaltzaindiak datuegian gordeta duen hitza den a la ez esaten zigun. Horrela, gordeta ez dituen hitzak toponimotzat ez genituen jo eta gordetakoak, aldiz, euskal jatorrizko toponimoak zirelakoan, euren aztertze-lanari ekiten genion. Gainera, Euskaltzaindiako onomastika zerbitzuaren arduraduna den Mikel Gorrotxategi Nietok aholkatu zigun *Glez. de Viñas*prerekin kontaktuan jartzea eta horixe bera egin genuen. Bilaketa lana eta toponimioen identifikazio lanaren ostean aztertze-lana egin genuen. Alde batetik, hitzaren deskonposaketa eta beste aldetik hitz horren kontextualizazio lana, hots, hitz hori zeren izena den: herri, mendi, eraikin, edo beste edozerena. Lan honetan, Trebiñuko bizilaguna den *Andoni Llosa* adituaren laguntza estimagaitza ere izan genuen.

HERRIA	ZNBK	TOPONIMOA	ESANAHIA
--------	------	-----------	----------




San Vicentejo	9	Larrarte	Bere sorreran larre + arte edo tarte zegoela, erderazko <i>entre prados</i>
Armentiakok Bentak	24	Turrizabal	Iturri zabala hasiera batean.
Argote	38	Garrizabal	<i>El llano del trigo</i> edo, beharbada seguruago, <i>el trigal ancho</i> . Toponimoetan “gari” askotan agertzen da <i>trigal</i> ere adierazteko, sagar <i>manzaneda</i> eta abar azaltzen den moduan.
Trebiñu	20	Basaran	Basoa zuen aranari deitzeko ziur aski.
		Basondo	Basoaren ondoan.
		Zubiarte	Zubiarte asko dago toponimian eta gehienetan <i>entre puentes</i> izan ohi da.
		Guardamendi	Ziurrenik hasieran gordemendi izango zen, alegia, <i>el escondite</i> , eta gero erdal kutsua hartu zuen, gorde- <i>guardar</i> aldaketarekin.
Franko	22	Basoa	Basoa zegoen garai batean.
Obekuri	29	Martinzabal Martinarri	Zabal horrek gehienetan <i>el llano</i> adierazi nahi du, <i>el llano de Martín</i> , eta bestea <i>la piedra de Martín</i> (Tipo bitxia Martin hori).
		Axkorri	Axkorri = atx + gorri, izan daiteke <i>la peña roja</i> edo, askotan, <i>la peña pelada, desarbolada</i> .



		Arizulo	Arizulo ez dago garbi. Baliteke "ahari + zulo" izatea, <i>el hoyo del carnero</i> edo holako zeozer, nahiz eta gaur egun parajeen ez dugun kobarik ikusten, baina trokak-eta badaude, beraz baliteke.
Araiko	33	Txurrumendi	Kasu honetan, "txurru" hori agertzen den guztietan bezala, bakarrik nabarmendu daiteke "mendi" horren esangura gardena, eta aipatu ere toponimoa dudarik gabe euskalduna dela, baina urteen poderioz deformatu dela eta gaur egun ezin dugula jakin nondik ote datorren "txurru" hori.
Ozana	31	Zurbalday	Oso polita da, gaztelania eta euskara nahastua, Trebiñun zuhaitz bati (<i>serbal</i>) erderaz <i>el zurbal</i> esaten zaio, eta alday hori euskeraz aldaia da, aldea: <i>Lo del zurbal, la parte del zurbal</i> .
		Ubide/Urarte	Ur + bide eta ur + tarte.
Pariza	28	Arenaga	Baliteke aintzinean arenatza izatea, <i>el arenal</i> .
		Esturrioz	Esturrioz ia segurua da Iturriotz zela, askotan ikusten da.
Ogeta	27	Ibarrate	Ibarrate baliteke ibarraren atea, <i>la puerta de entrada al valle</i> . Baliteke ere ibar + arte izatea, <i>entre valles</i> , eta r hori galduta izatea.



Pedruzo	25	Arzubia	Izan daiteke harrizko zubia.
Saraso	26	Urralde	Urralde, seguruenez hur eta alde, <i>el avellanedo</i> . Oso ohikoa da.
		Crucimendi	Crucimendi argi eta garbi dago, Arabako mendialdean ere badago antzekoa, kurutzia edo kurtzia eta mendia, <i>el monte de la cruz</i> , baliteke <i>calvario</i> bat egotea bertan, orain edo lehen.
Marauri	23	Landarbide	Landetarako bidea, <i>el camino a los prados</i> .
		Mendiguri	Mendiguri oso ohikoa eta polita. "Guri" hori atxina "guren" zen, adibidez Mendiguren. Viñaspreren ustez esanahi posible bi daude, zenbait lekutan "guren" horrek adierazi nahi zuen <i>linde, límite: El límite del monte, la muga</i> . Baina zenbait lekutan guren horrek <i>hermoso</i> adierazten zuen, <i>el monte hermoso</i> .
Uzkiano	21	Uriagarri	Roberto Glez. de Viñasprek konparatu zuen beste batekin, Parizagarri delakoarekin, beharbada antzekoak direlakoan. Azalpena oso bitxia da: antza da askotan agertzen den kasuetan bere jatorria ez dela barri, baizik eta pentsatzen dute adituek lotura duela <i>agirre, agerre, agarre</i> eta halango hitzekin. Bizkaiko mendebaldeko kostaldean, oso ugariak dira "agarre" eta "agerre" toponimoak. Badirudi hitz hauek



			esan nahi zutela, aspaldi, <i>un sitio desde el cual se ve...</i> , alegia, Parizagarri hitzak esan nahi zuen <i>un sitio desde el cual se ve muy bien Pariza</i> , eta Viñaspreren esanetan hala da, leku horretatik Pariza frontean dago, bista itzela da. Beraz inportantea da Uriagarri hau zein herritan eta non dagoen jakitea, ze hara bagoaz eta handik herria oso ondo ikusten bada, pentsa daiteke lasai asko toponimoak esan nahi zuela <i>lugar desde el cual se ve el pueblo (uria)</i> .
		Aramendi	Aran eta mendi, <i>el monte del valle</i> , <i>el alto del valle</i> , <i>incluso el bosque del valle</i> .

Inkesta-txostenetan agertzen diren hitzak ere aztertu genituen eta bertan agertzen den *errotaberri* eraikuntzaren bizilagunarekin hitz egin genuen. Odei, Urizaharreko bizilaguna, Errotaberri etxekoa, esan zigun “*hitzak dion bezala garai batean bere etxean errota bat bazegoela gaur egun oraindik irauten duena baina erabiltzen ez dena. Ur errota da eta bere ustez, izenaren zergaitia, garai batean herrian beste errota bat egongo*

zen eta errota berri hau bestetik bereizteko izen hori jarri ziotela”.



Trebiñun bertan zenbait herriren izenak aurkitu genituen (irudia).

Beraz, hau izan da guk (5. eta 6. mailako Trebiñuko eskolako euskerako ikasleok) denon artean klasean egindako lana. Gure euskerako irakasleak lagunduta eta zuzenduta noski, gogo haundiz eginiko lana. Lan honen bidez lehendik ezagutzen genituen herrien izen batzuen euskal jatorriaz jabetu gara eta euskera Trebiñun historia luzea izan duela ere konturatu gara.

Bestalde, txosten hauetan agertzen diren hitz bukaeren eta guk proposatutako beste batzuen bilaketa lanari ere ekin genion.

- auri: Marauri, Bajauri...
- itu: Zurbitu,...
- uri: Imiruri, Obekuri,...
- arte: Ajarte,...
- ote: Argote,...
- eta: Ogeta, Saseta, Burgeta

Azkenik, lanean aipatu nahi dugu Trebiñuko eskola publikoa Burgoseko eremuari dagokion eskola izanik, ez daukagula euskera ikasgai moduan emateko aukerarik eta beraz, ikastetxeko ordutegitik kanpo, eguerdian, jaso behar izaten ditugula klaseak, ordu gutxi horiek aprobetxatuz lan hau egiteko. ,

”
Trebiñu eskolako ikasleak